

Euskal presoak Martxa nazionala

# Presoen eskubideen aldeko martxa Baigorritik abiatuko da larunbatean

Euskal Herri osoko 800 elkarte, erakunde eta pertsonalitatek egin dute bat

Hur Gorosotiaga / Donibane-Lohizune

**Euskal presoen eskubideen aldeko martxa larunbat eguerdian abiatuko da Baigorriko plazatik. 100 metroko erreleboak eginez, Euskal Herri osoa zeharkatuko du ibilaldiak uztailaren 28a bitartean. Presondegiatako giltza sinbolizatzen duen gako eskuz-esku pasaziko dute.**

HASTAPENEAN ibilaldia Donibane-Garazitik abiatuko zela uste bazen ere, datorren larunbateko eguerdian Baigorriko plazan hasiko da. Lehen kilometroan 200 metroko erreleboak eginen dira, eta Euskal Herriko probintzia bakoitzeko bina kide «esanguratsuk» hartuko dute lekukoa, aldiko. Ondotik, aldiz, 100 metro bakoitzeko aldatuko da eskuz-esku gako itxurako egurrezko lekukoa.

Donibane-Lohizunen (Lapurdi) atzo egin zen aurkezpen prentsaurrekoan, EHNE, LAB, Hiru, ESK, Senideak, kultur munduko ordezkari eta plataformetako ordezkariak hartu zuten parte. Bertan izan ziren Rafa Diez LABeko idazkari nagusia, Maite Aristegi EHNE sindikatuko burua, Tomas Karrera Senideak elkarte bozeramailea eta Xabier Euzkitze bertsolari-kazetaria, zein Erramun Martikorena kantaria, bertzeak bertze.

Ibilaldia «presoen eskubideak errespetatuak izan daitezten aldarrikatzeko ekimen»



Presoen aldeko martxa nazionalaren aurkezpena atzo Donibane-Lohizunen.

gisa aurkeztu zuten, berehalako Euskal Herriratzea eta sakabanatzearekin bukatzea galdeginez. Gisa berean, euskal presoen eskubideen alde «ahal bezainbat jende biltzeko parada» izanen dela adierazi zuten, herriz-herri ahalik eta jende aboroen izan dadin dei egin baitzuten.

Karia horretara, HB, AB, Batzarre alderdiek, EHNE, ELB, ESK, Hiru, LAB, STEE sindikatuak, AAB, ABK, EHE, Koordinaketa, Gernikako Batzordeak eta Herria 2000 Eliza mugimenduek adierazi dute elkartasuna martxarekin. Herriz herriko elkarteak kontuan hartuz gero, 800 erakunde, elkarte eta pertso-

nalitate inguruk egin dute bat martxarako deiarekin, oraino.

EA eta EAJ alderdien zuzendaritzari proposamena helarazi bazaie ere, «momentuz erantzunik ez» dutela jaso adierazi zuen Karrerak. Hala ere, «garrantzitsuena herriz herriko herritarren partehartzea eta sustengua» izanen dela azpimarratu zuen Senideak elkarteko kideak.

## Eskutik eskura 41 egunez

Peio Gorritik egin eskulturak, presondegiatako ateak irekiko dituen giltzaren sinbolo izan nahi du. Goizero preson-

degiko ziegaren itxurako kaiolatik aterako dute, eguneko etapa finitzean berriz kaiolarat itzultzeko, herritarren eskuetan zenbait oren eta kilometroz Euskal Herrian aske ibili ondoren.

## «Abertzale sumindua» egungo Europako izurritea dela dio Brissonek

■ Igandean orain 60 urte De Gaullek egin deia oroituko dute Miarritzen

Erredakzioa / Baiona

MAX BRISSON Ipar Euskal Herriko RPRko bozeramaileak euskal abertzale-tasunaren kontrako hitzak izan ditu berriz ere, iragan astean Michele Alliot-Marie RPRko buru eta Donibane-Lohizuneko auzapez-diputatua Madril-en izan zenetik, behin eta berriz egin duen gisan.

Igandean, ekainak 18, 60 urte beteko dira Charles De Gaulle jeneralak Ingalaterratik Frantziako herriari subiranotasunaren aldeko deia egin zionetik. Urtero egin ohi den gisan, Miarritzeko Hilen oroitarrian omenaldia eginen diote De Gaulle zenari. Karia horretara, egun eraikitzen ari den Europa «izurrite zaharren babesean ez» dagoela adierazi du Brissonek, Hego Euskal Herriko egoera gogoratuz. «Gure etxetik hurbil, Espainian, euskal abertzale-tasunaren izenean hiltzen dute, iritzi ezberdinekoa izateagatik soilik» adierazi du.

## Maite Aristegi: «Sindikatuok gure arnasa eskainiko dugu presoen eskubideen alde»

■ MAITE ARISTEGI Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak elledunak «presoen eskubideen urratze eta zapalketarik biziki kezkatu» dagoela adierazi zuen sindikatuen izenean. «Sindikatuok hamaika moldetan saiatu gara eskubide horiek errespetat-

razten. Presoen eskubideak oinarrizko eskubideak dira, baina era berean Euskal Herriak bizi duen gatazka konpontzeko oinarrizko giltza dira» adierazi zuen Aristegik. Euskal sindikatuak presoen alde oraino gehiago emateko prest daudela berretsirik, ibilaldian be-

ren hatsa emanen dutela adierazi zuen. «Sindikatuok gure arnasa presoen alde eskainiko dugu, eta herritar oro deitzen dugu gisa berean joka dezan» adierazi zuen Aristegi andereak.

Lehen etapa Baigorritik izanen bada ere, Izura bitarteko ibilaldia eginen du-

te, Uharte Garazi, Donibane-Garazi, Donazaharre eta Larzabale gainditu ondoan. Igandean Donibane-Lohizunen kokatuko da, goizean, 11:00etarik goiti. Bertan, CGT, CFDT eta Sud Iparaldeko sindikatuetako kideek ere parte hartuko dutela iragarri zuten.